

PRENTSA OHARRA
COMMUNIQUÉ DE PRESSE
NOTA DE PRENSA

Frantsesa ↔ euskara itzultzaile neuronalak hobetzeko Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak hitzarmena aurkeztu dute

- Akordioari esker EEP-k Eusko Jaurlaritzaren esku utziko du bere corpus linguistikoa ITZULI itzultzaile neuronalak entrenatzeko

Baiona 2022/01/27

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaranek eta Euskararen Erakunde Publikoko presidente Antton Curutcharry-k bi erakundeen arteko hitzarmena aurkeztu dute gaur Baionan EEP-ren corpus linguistikoa Jaurlaritzaren esku uzteko. Helburua Eusko Jaurlaritzak 2019an martxan jarritako itzultzaile neuronalak (www.euskadi.eus/itzuli) entrenatzea eta hobetzea izango da.

Itzultzaile automatiko neuronalak corpus elebidun handiak behar ditu, kalitatekoak, bere entrenamendua bultzatu, ikasi eta itzulpenak hobetzeko. Euskararen Erakunde Publikoarekin sinatutako hitzarmenak euskararen eta frantsesaren arteko bi norabideetako itzulpenak hobetuko ditu. Aldi berean, EEP-k bere webgunean izango du itzultzailea eta Iparraldeko erabiltzaileei eskainiko die web bidezko zerbitzua.

Hitzarmenak lau urteko iraupena izango du eta aldeek hala nahi izanez gero beste lau urterako luzatu ahal izango da.

Adimen artifizialari esker garatutako tresna da ITZULI, itzultzaile automatikoa. 2019an jarri zen martxan eta orduetik online itzultzaile orokorra eta juridiko-administratiboa daude. Eskuko telefonoetan ere erabili daiteke Android eta iOS-erako app-a instalatuta, eta ITZULI+ tresna-barra (www.euskadi.eus/itzuliplus) ere garatu da, itzultzaileaz gain, hiztegiak eta euskarazko Wikipedia ere eskura jartzen dituena. Gainera ITZULI itzultzaile neuronalari Adimen Artifizialari esker garatutako ahotsaren sintesia eta ezagutza (transkripzioa) gehitzeko lanean ari da Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritzak "Euskararen Ingurune Digitala: gomendioak 2021-2024" dokumentua aurkeztu zuen 2021eko maiatzean eta bertan biltzen diren helburu nagusiekin egiten dute bat itzultzailea aberasteko ekimenek. Batetik, Eusko Jaurlaritzak eta EEPk sinatutako hitzarmena urrats bat gehiago da euskarazko eduki digitalak eta euskarazko tresnak, aplikazioak eta baliabide digitalak sustatzen laguntzeko eta, bestetik, euskarari eta euskarazko baliabideei ikusgarritasuna ematen die, betiere, erabilera areagotzeko helburuz. Hizkuntza Politikako sailburuorde Miren Dobaranek azaldu duenez, "tresna hauek erabilia, euskararen erabilera eta presentzia areagotuko da Iparraldean eta, laguntza-tresna horiei esker, erabiltzaileek euskara lanean edo eskolan erabiltzeko orduan konfiantza bereganatuko dute. Tresnak etengabe hobetzen eta osatzen ari dira eta gero eta aukera gehiago eskainiko dute". Bestalde, Antton Curutcharry Euskararen Erakunde Publikoko Presidenteak azpimarratu du "mugazgandiko lankidetzaren garrantzia, ingurune digitalean euskararen presentzia eta erabilpena sustatzeko". "Ingurune digitala euskaldundu behar dugu biztanlerian eta bereziki gazteengan duen eragina ikusirik", "behar hori argi dugu aspalditik eta Nola Erran hiztegi digitalak, EEPk sortu zuen lehen tresna digitalak, izan duen eta oraino duen arrakastak garbi uzten du".

L'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement de la Communauté autonome d'Euskadi présentent la convention de partenariat pour l'amélioration du traducteur automatique neuronal français ↔ basque

- Ce partenariat permettra à l'OPLB de mettre à disposition du Gouvernement Basque un corpus linguistique pour améliorer le traducteur automatique neuronal

Bayonne le 27/01/2022

Miren Dobaran, Vice-Ministre en charge de la politique linguistique du Gouvernement de la Communauté Autonome d'Euskadi, et Antton Curutcharry, Président de l'Office Public de la Langue Basque ont présenté à Bayonne, une convention entre les deux institutions pour la mise à disposition par l'OPLB au Gouvernement d'Euskadi d'un corpus linguistique pour entraîner le traducteur automatique neuronal (www.euskadi.eus/itzuli) mis en place par le Gouvernement Basque.

Le traducteur automatique neuronal nécessite d'importants corpus bilingues de qualité pour s'entraîner, apprendre et améliorer ses traductions. La convention signée avec l'Office Public de la Langue Basque améliorera les traductions dans les deux sens entre le basque et le français. Dans le même temps, le traducteur a été mis en ligne sur le site internet de l'OPLB, offrant ainsi ce service aux usagers du Pays basque nord.

La convention a été signée pour une durée de quatre ans et pourra être renouvelée pour quatre années supplémentaires si les parties le souhaitent.

Le traducteur automatique Itzuli a été développé grâce à l'intelligence artificielle. Depuis sa mise en ligne en 2019, un traducteur généraliste ainsi qu'un traducteur juridique et administratif ont été créés. Le traducteur peut être utilisé sur des smartphones, et une barre de recherche ITZULI+ a été développée permettant l'accès au Wikipedia en langue basque et à un certain nombre de dictionnaires. De plus, le Gouvernement basque travaille à l'amélioration du traducteur automatique par l'ajout de la synthèse et de la reconnaissance vocale (transcription) grâce à l'intelligence artificielle.

Le Gouvernement Basque a présenté en mai 2021 un rapport intitulé « Environnement digital de la langue basque : recommandations 2021-2024 ». Les actions engagées pour enrichir le traducteur automatique répondent aux principaux objectifs de ce document. La convention qui est présentée aujourd'hui participe au développement des outils, applications et ressources digitales en langue basque, et elle participe aussi à renforcer la visibilité de ces ressources en langue basque avec l'objectif de favoriser leur utilisation. La Vice-ministre en charge de la Politique linguistique, Miren Dobaran, a déclaré que « l'utilisation de ces outils renforcera l'usage et la présence de la langue basque en Pays Basque nord, et que grâce à ces outils, ceux qui utilisent la langue basque à l'école ou au travail pourront se l'approprier avec plus d'aisance. Ces outils se développent en permanence et offrent de plus en plus de possibilités ». D'autre part, le Président de l'OPLB Antton Curutcharry a souligné « l'importance de la coopération transfrontalière pour renforcer la présence et l'usage de la langue basque dans l'environnement digital ». « Vue l'importance du numérique dans la vie quotidienne des gens et en particulier des jeunes, nous devons y renforcer la présence de la langue basque, nous avons identifié ce besoin depuis longtemps, et le succès du dictionnaire Nola Erran, premier outil digital de l'OPLB, nous renforce dans cette conviction ».



El Gobierno Vasco y la institución *Euskararen Erakunde Publikoa* presentan un convenio para mejorar el traductor neuronal francés↔euskara

- El acuerdo permitirá a la EEP poner a disposición del Gobierno Vasco su corpus lingüístico para el entrenamiento del traductor neuronal ITZULI

Baiona 27/01/2022

La viceconsejera de Política Lingüística del Gobierno Vasco, Miren Dobaran, y el presidente de *Euskararen Erakunde Publikoa* (EEP), Antton Curutcharry, han presentado hoy, en Baiona, un convenio entre las dos instituciones para transferir al Gobierno Vasco el corpus lingüístico de la EEP. El objetivo es entrenar y mejorar el traductor automático neuronal que puso en marcha el Gobierno Vasco en 2019 (www.euskadi.eus/itzuli) .

El traductor automático neuronal necesita grandes corpus bilingües, de calidad, para impulsar su entrenamiento, aprender y mejorar sus traducciones. El convenio aportará calidad a las traducciones en ambas direcciones, euskera y francés. Al mismo tiempo, la EEP dispondrá del traductor en su sitio web para ofrecer dicho servicio web a las personas usuarias de Iparralde.

El convenio tendrá una duración de cuatro años y podrá ser prorrogado por otros cuatro años si las partes así lo desean.

ITZULI es una herramienta desarrollada gracias a la inteligencia artificial. Se puso en marcha en 2019 y desde entonces se han desarrollado el traductor genérico y el jurídico-administrativo. También se puede utilizar en los teléfonos móviles, instalando la APP en Android como en IOS, y se ha desarrollado la barra de herramientas ITZULI+ (www.euskadi.eus/itzuliplus), que además del traductor pone a disposición de las personas usuarias diccionarios y la Wikipedia en euskera. Además, el Gobierno Vasco trabaja para incorporar al traductor neuronal ITZULI la síntesis y el conocimiento de la voz (transcripción) desarrollado gracias a la Inteligencia Artificial.

El Gobierno Vasco presentó en mayo de 2021 el documento "El Entorno Digital del Euskera: recomendaciones 2021-2024" y con cuyos objetivos principales se alinean las iniciativas para enriquecer al traductor automático. Por un lado, el convenio fomenta contenidos digitales en euskera, así como herramientas, aplicaciones y recursos digitales en euskera. Además, ayuda a dar visibilidad al euskera y a los recursos digitales en euskera y así poder aumentar su uso. La viceconsejera de Política Lingüística, Miren Dobaran, ha explicado que con estas herramientas "se incrementará el uso y la presencia del euskera en Iparralde y, gracias a estas herramientas de apoyo, las personas usuarias adquirirán confianza a la hora de utilizar el euskera en el trabajo o en la escuela. Las herramientas están mejorando y completando continuamente y cada vez van a ofrecer más posibilidades". Por su parte, el Presidente de Euskararen Erakunde Publikoa, Antton Curutcharry, ha destacado "la importancia de la cooperación transfronteriza para fomentar la presencia y el uso del euskera en el entorno digital. La necesidad de euskaldunizar el entorno digital, dada su influencia en la población y especialmente en los jóvenes, es algo que tenemos claro desde hace tiempo y el éxito que ha tenido y sigue teniendo el diccionario digital *Nola Erran*, la primera herramienta digital creada por el EEP, es un claro ejemplo de ello".